



AHTren kalteez ohartarazi eta agintarien isiltasuna salatu dute

TOLOSALDEA ▶ Abiadura Handiko Trenak eskualdea zeharkatzean eragingo dituen «txikizio larriak» salatu ditu Elkarlanak

EPAIKETA ▶ Mendi martxa batean parte hartu zutenen aurkako epaiketa egingo dute bihar; kontzentrazioa deitu dute Tolosan ▶ 5

Bote luzean, Ikaspilota egitasmoaren topaketan

TOLOSALDEA ▶ Tolosako Hirukide, Anoetako Ikastola, Alegiako San Joan eskola, Ibarako Uzturpe ikastola, Villabonako Fleming eskola eta Berrobiko eskola aritu dira, Tolosan ▶ 3

N. LATABURU



LARRAUL ▶

Ekitaldi ugari Ostatuaren lehenengo urteurrena ospatzeko

Musika emanaldiak, afaria, txokolatada, irteera... antolatu dituzte asteburuan ▶ 4

Jauko Barik taldekoek joko dute Ostatuan. HITZA

LEITZA ▶

Suhiltzaileen egoitza handitzeko lanak ari dira egiten

Lantalan enpresak du ardura; 54,1 mila euroko aurrekontua dute lanek ▶ 7



Eraikinaren obrak, atzo. J. ASTIBIA

TOLOSA ▶

Haur Liburutegiaren lekualdatzeaz, «balantze ona»

Errotan jarri dutenetik mailegu kopurua «nabarmen» igo da ▶ 2

KULTURA ▶

Haur Liburutegiko mailegu kopurua «nabarmen igo da», Errotan jarri dutenetik

Eraikin aldaketaren balantzea «baikorra» da, Kultur ordezkarien esanetan; bere horretan mantentzea edo «ahal den neurrian» igotzea dute xede 2006rako



Urriaren 14an ireki zuten Errotako Haur Liburutegia eta, orduetik, maileguek nabarmen egin dute gora. n. l.

NOELIA LATABURU

«Haur Liburutegia Errotan da goenetik izugarri igo da maileguen kopurua, eta horrela jarraitzea dugu xede». Gisa honetara jardun zuten Tolosako Udaleko Kultur arloko ardura-dunek Haur Liburutegiaren gainean. Halaber, 2005eko balantzea egiterako garaian, haurrei zuzenduriko ekitaldi eta jardueri buruz «sendotuta» daudela azaldu zuten, bi

apustu medio: Galtzaundirekin kolaboratzea eta Iparraldearekin ireki duten elkarlan bidea.

Haur Liburutegiaren datuek gorako joera dute, ezbaierik gabe, 2005eko hasieratik amaierara. Errota iragan urriaren 14an ireki zuten eta orduantxe hasi zen, hain zuzen ere, mailegu kopuruaren «igoera nabarmena». Datuak esanguratsuak dira: azaroko eta abenduko hilabeteen artean 6.782 mailegu egin ziren Erro-

ta, eta urtarrietik irailera bitarte, aldiz, 11.634 Haur Liburutegi zaharrean. Ia-ia bikoiztu egin dira, bada, maileguak Errotan. Maileguen artean, gehienak bideoak eta euskarzko liburuak izan ziren, eta gaztelaniazko eta ingelesezko liburuak neurri txikiago batean eskatu ziren. Joera bera dute, halaber, mailegu zerbitzuaren erabilizaileru kopuruen datuek; hau da, urritik aurrera gora egintzen dutela. Eusko Jaurlaritzak antolatutako ELSNko on line katalogoan azaldutako datuen arabera, bazkide kopuruak ere «erruz» egin du gora: urtarrilean 209 baziren, urte amaierarako 1.037 haur egin ziren liburutegiko bazkide.

Ekintzen emaitzak, «onak»

Haur Liburutegiak ekintza mordoan antolatuta eta garatu ditu urtean zehar: batetik, *Ipuinaren ordua*; honen barnean aipagarriak dira Asvineneako ipuin kontaketa, Idoia Sanchezen *Berunezko soldadutxo* (Haur Liburuaren Eguna) eta Nerea Herrarteren ipuin ema-

EMAITZAK

Haur liburutegiko maileguak eta bazkide kopuruak bikoizteraino ere heldu dira, urriaren 14tik aurrera

HAUR EKITALDIK

Balantze «ona» egin dute Kultur ordezkariak urtean zehar antolatutako dituzten haur ekitaldien gainean

INFORMAZIO PANELAK

«Errotaren kanpoko parke arkeologikoan informazio panelak ezarriko ditugu, zona berreskuratu asmoz»

naldia. Guztiak ere «arrakasta» izan zuten, eta ume asko biltzea ere lortu zuten. Antzerkiak ere izan du tarterik, eta urte hasieran, *Inaxitoren ametsak* bertso-antzerki saioa izan zen ikusgai. «Kalitate oneko» antzezlanak izan zuten, eta 6 eta 12 urte bitarteko 100 haur bildu zituen. Urtean zehar izandako ikasleen bisitaldiak ere «nabarmen igo zuten bazkide kopurua». Honekin batera, beste-lako kultur ekitaldiek osatu dute agenda, hala nola, *Berunezko soldadutxo* ipuinari buruko erakusketa; Uxola Saria izeneko lehiaketaren sarietan irabazleei liburutegiko bazkide eta liburu bana oparitu izana. Ekainean, berriz, *Biblioporrak zeuk aukeratu* ekimena eraman zuten aurrera, non 283 umeek parte hartu zuten.

Bestalde, Errota eraikinaren kanpoan dagoen parke arkeologikoaren gainean bi hitz eman zituzten Kultur arduradunek: «Gure asmoa panel informatiboak jartzea da, jendeak ondo ulertzeko parkearen nondik norakoak». Guztia gutxi izango dela adierazi zuten («lehen erdi ahaztuta zegoen herriko gune hau berpizteko eta bertan mugimendua sartzeko»).

ZINEMA ▶

New Yorkeko kritikariak 'Obaba' filma saritu dute

Film Onenaren Saria jaso du; sari banaketa maiatzaren 6an burutuko dute

ERREDAKZIOA

Iragan astean jakitera eman zuten, Oscar Sarietan hautagaien zerrendatik at geratu bazen ere, Bernardo Atxaga asteasuarraren *Obabakoak* eleberrian oinarritutako Obaba filmak sariak pilatzen darrai. Izan ere, New Yorkeko Kritikarien Elkarteak Film Onenaren Saria eman dio Montxo Armendarizek zuzendutako lanari. Halaber, film horretako aktore batek, Pilar Lopez de Ayala, hain zuzen ere, Aktore Onenaren Saria eskuratu du. Aipatutako sariak maiatzaren 6an banatuko dituzte, New Yorken.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gemikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaurren autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ lurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan lau orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. Deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

Iturgina. Iturgin lanetarako laguntzailea behar da. 656 41 68 08.

Ume zaintzailea. Alegian, neska behar da 05:30etik 09:00ak arte umei gosaria eman eta eskolara eramateko bakarrik. Deitu 645 72 55 78ra.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Hemeroteka. Gure web orrian, eguneko berriez gain, gure egunkarian aurrez argitaratu diren berriak ere ikus ditzakezu. Horretarako nahi duzuen herrian sakatzea nahikoa da, bertan aterako baita zerrenda, edo *bilaketak* atala erabiliz; edo *aurreko aleak* atala baliatu. Albiste garrantzitsuak galdu badituzu, ez galdu aukera eta sartu gure webgunean.

IKASPILOTA TOPAKETA ▶

Bote luzearen inguruan aritu dira jolasean

Hainbat eskoletako ikasleek parte hartu dute Ikaspilota egitasmoan

IMANOL GARCIA

Ikaspilota egitasmoaren topaketa burutu zuten atzo Tolosan, Kutxak antolatu eta Ikasiker enpresak sustatuta. Eskualdeko hainbat ikastetxek parte hartu zuten: Tolosako Hirukidek, Anoetako Ikastolak, Alegiako San Joan eskolak, Ibarra-ko Uzturpe Ikastolak, Villabonako Fleming eskolak eta Berrobiko eskolak. Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak aritu ziren bote luzea kirolari lotutako topaketan.

Bi zatitan banatu zen atzoko topaketa. Alde batetik, hiru talde nagusi osatu ziren eta Beotibarren, Hirukiden eta Usabalen izan ziren. Ordu eta erdian jardun zuten hiru lekuetan bote luzearen inguruko jolasak egiten. Arrastaka aritu ziren jolasean, espazioaren inguruko zenbait kontzeptu lantzeko.

Berreskuratu eta indartu

Lehenengo saioa bukatu ondoren, Usabal kiroldegian elkartu ziren ikasle guztiak, bote luzea praktikatzeko. Bote luzea euskal pilotako modalitatearririk zaharrena da, antolatzaileek azaldu dutenez. Aurrez aurre jokatzeko da eta garai batean euskal artzainek asmatu eta garatutako jokoa da. Hain zu-

zen, Ikaspilotaren helburuetako bat bote luzea berreskuratzea eta indartzea da. «Topaketa hauen helburua euskal jolasak indartzeaz gain ikasleen arteko harremanak lantzea eta garatzea litzateke. Beti ere jolasak nahiz lehia tresna motibataile bezala erabilia eta ez helburu bezala. Ondo pasatu eta gure kulturaren transmisioa garatzea», laburbildu dute antolatzaileek.

Usabaleko hitzorduan gus-tura aritu ziren ikasleak jolasean. Antolatzaileek aurretik erakutsi dizkiete irakasleei bote luzearen ingurukoak, eta eskoletan praktikatzeko aritu dira orain arte; atzoko topaketa izan da egitasmoari amaiera eman diona.

Bote luzearekin zuzeneko lotura duen kirola Villabonan praktikatzeko da, hau da, erre-botea. Behar-Zana elkarteak eusten dio kirol zahar horri, eta Gipuzkoan hiru tokitan bakarrik jokatzeko da: Villabonan bertan, Zubietan eta, berriki, Oiartzunen.

Ikaspilota egitasmoaren hurrengo topaketak Tolosaldean martxoan eta maiatzean egingo dituzte. Hurrenez hurren, DBHko 2. mailakoak Tolosan elkartuko dira eta DBHko 1. mailakoak, berriki, Anoetan egingo dute haien arteko topaketa.



Giroa. Ikasle ugari elkartu ziren, 150 inguru, eta eskola ezberdinetakoak, giro ederra sortuz. NOELIA LATABURU



Jolasean. Pilotarekin jolasean aritu ziren atzo Usabalen eskualdeko hainbat eskoletako ikasleak, argazkian bote luzeako sarea ateratzen agertzen den gaztetxoak, esaterako. NOELIA LATABURU



Harremanak. Ikaspilota egitasmoaren helburuetako bat ikasleen arteko harremanak sortzea eta taldean lan egiteko gaitasuna garatzea da. NOELIA LATABURU

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzue EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin

TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

LARRAUL ▶ GIZARTEA

Lehenengo urteurrena ospatzeko ekitaldiak Herri Ostatuan

Musika sesioak izango dira etzi arratsaldean eta gauean; larunbatean irteera Oiartzunera eta igandean txokolatada



Jauko Barik taldeko partaideak; ostiraleko musika sesioan izango dira. HITZA

IMANOL GARCIA

Larraulgo Herri Ostatuaren ardua hartu zuenetik hilaren 10ean urtebete egingo duela. Imanol Polok hainbat ekitaldi antolatu ditu asteburu honetarako. Etzi hasiko dira ekitaldiak. 17:30ean, poteatzeko elkartuko dira eta 18:30ean hasita bi musika sesio antolatu dituzte. Alde batetik, hainbat musikaririk hartuko dute parte, talde ezberdinetakoak: Kean, Mondo Cretino, Sylocibe, Tirri-

Tarra, Mal de Muchos, Txoriburu, Jauko Barik... Horren ondoren, afaria egingo dute, 21:00ak inguruan —erreserbak egiteko bihar izango da azken eguna—, eta afalostean hainbat DJren musika: Revolution Brothers, Mr. Snoiz and Puchero eta Imanol Kostas. Larunbatean irteera antolatu dute Oiartzunera. Eta, igandean, 17:00ak aldera, haurrentzako txokolatada prestatuko dute.

Urte honetako erreparasoa

eginez, «herrian kokatzeko» balio izan diola adierazi du Polok, eta zenbait kexa ere luzatu dizkio Udalari: «Berogailuak hondatuta daude, sukaldean dagoen zuloa ez dute estaltzen, alokatuta dauden 13.200 watioetatik erdia bakarrik erabil daiteke... Hainbat gauza daude konpontzeko, baina Udalak ez du ezer jakin nahi». Bestalde, etorkizunerako hainbat proiektu ditu buruan, ogia egitearena, esaterako: «Ahal bada hobetzen saiatuko naiz».

ZIZURKIL ▶ TASAK

Hobarien eskaera egiteko epea zabalik da

Hilaren 24a arte dago tasak ez ordaintzeko edo gutxitzeko eskaerak aurkezteko aukera

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak bando baten bidez jakinarazi duenez, ur eta zaborren tasak ez ordaintzea edo gutxitzeko eskaerak aurkezteko epea ireki da. Epe hori hilaren 24an bukatuko da. Eskaeran aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da: familiako kide guztien nortasun agiriaren fotokopia; errolda eta elkarbizitze ziurtagiria eta familiako

kide guztien diru sarreraren ziurtagiria, hau da, errenta aitortpenaren fotokopia edo egitea behartua ez dagoenaren agiria; langabezi txartela eta INEMen jasotzen den laguntzaren agiria eta Foru Hazien-dak emandako ondasun agiriak.

Interesa duenak informazio gehiago udal bulegoetan edo honako telefono hauetan lortuko du: 943 69 10 12 edo 943-69 30 66.

ANOETA ▶ AHT

AHTri buruzko datuak zabaltzeko ekitaldiak

ERREDAKZIOA

Anoetako gizarte eragileek (Anoetako Gazte Asanbladak, Anoetako Segi-k, Anoetarrok Auzolanean herri plataformak eta AHT Gelditu! Elkarlanak) ekitaldiak antolatu dituzte asteburu honetarako AHTk «herriarentzat suposatuko duenari» buruzko informazioa zabaltzeko, zubibidea eta tunelaren bi ahoak eraikiko lituzkeen inguruari buruzkoak, hain zuzen.

Ostiralean eta larunbatean antolatu dituzte ekitaldiak.

Etzi, 19:30ean, diapositiba emanaldia egingo dute Gazte-txean, *AHTren kalteak Anoetan* izenburupean. Larunbatean, 12:00etan, panel informatiboak jarriko dituzte zentrala eta Gain-Berri baserriaren inguruan. Giroa alaitzeko ha-maiketako egingo dute eta trikitilariak, bertsolariak, txalapartariak... izango dira. Ondoren, txango informatiboa egingo dute. Egunekoak amaitzeko, 14:00etan bazkaria egingo dute Sarasola sagardotegian, trikitilariak eta bertsolariak alaiturik.

ANOETA ▶ KZGUNEA

Informatikako hastapeneko ikastaroak doan

ERREDAKZIOA

Interneten nabigatzen, xagua maneiatzen eta posta elektronikoa erabiltzen ikasteko ikastaroak antolatu dituzte Anoetako KZgunean. Hastapeneko ikastaroak izango dira, hau da,

informatikaren munduan lehen pausoak eman nahi dituztenentzat. Hogei ordu iraungo dute eta doan izango dira. Ikastaro hauetan interesa dutenek udaletxera deitu behar dute izena emateko, hilaren 17a arte.

Horrez gain, eta ohi bezala, bihar tutorearen bisita jasoko dute KZgunean. 09:00etatik 13:00etara izango da, eta tarteran mintegi bat eskainiko du. *Adobe Acrobat Reader: pdf formatuak irakurtzen uzten dizun programarekin familiariza*

zaitez izena du mintegiak, eta bi ordu iraungo ditu, 10:00etatik 12:00etara. Mintegian parte hartzeko interesa duenak ez du aurretik izena eman beharrik, nahikoa baitu KZgunera joatea saioa hasi baino lehen-txeago.

ZIZURKIL ▶

Otaño eskolan matrikulatzeko aukera hilaren 17a bitarte

ERREDAKZIOA

Hilaren 17a bitarte 06-07 ikasturteko aurrematrikulazio epea irekia dago Pedro M^a Otaño Herri Eskolan. Bulegoko ordutegia 09:30etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara izango da. Zerbitzuen artean, eskolak jantokia (2 urtetatik 12 urtetara) eta haurtzaindegia eskaintzen ditu.

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA
IKAS KOMUNITATEA
PEDRO M^a OTAÑO HERRI ESKOLA
Pagamuño auzoa, 16 - ☎ 943 6914 78 - ZIZURKIL
Posta elektronikoa: 012041aa@hezuntza.net

KEY-LAN
Sarrailgintza
Nafarroa etorb, 13 behea - TOLOSÁ
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

ENBALAJE INDUSTRIALA
egiteko mutil bat behar da
iluntzeko 20:30etik aurrera deitu
Tel.: 651 657 982

AHT ▶

Isiltasuna salatu eta AHTk eragingo dituen kalteez ohartarazi dute

Martxa batean parte hartzeagatik hainbat lagun epaituko dituzte bihar; Tolosako epaitegian kontzentratzera deitu dute



AHT Gelditu Elkarlanak deitutako manifestazioetako bat, Tolosan, arxivoko irudian. I. GARCIA

NEREA URBIZU

Urteak dira AHT proiektua denon ahoetan dela. Gutxinaka, ordea, paperetan zegoen proiektua forma hartzen ari da, eta denbora gutxian AHT ikusi ahal izango da. Ez dago argi oraindik Euskal Y nola egituratuko duten, baina Euskal Herria alde batetik edo bestetik zeharkatu egiten duela zalan-tzarik ez dago.

Nafarroako Gobernuak AHT-ren aldeko kanpaina «sutsuki» babestu egiten duela eta hori egituratzeko pauso sendoak ematen ari dela diote Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlaneko kideek. «Euskal Y Nafarroako Korridorearekin lotu egin nahi dute, eta baliteke bi sare hauek Tolosan lotzea. Horrek hainbat ondorio dakartza; besteak beste, Tolosaldeko herri askori kalte handiak, Aralar mendizerran inpaktu eta txikizio larriak egin ondoren Bedaioko herria aterako litzatekeelako».

Sustapen Ministerioaren planen arabera, bi aukera daude Nafarroako Korridorea eta Euskal Y lotzeko: Zuasti eta Ordizia arteko proiektua eta, bestetik, aipatu den Zuasti eta Tolosa artekoa. Azken honi E alternatiba deitzen zaio, eta

Eusko Jaurlaritzan, Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planean H2 aukera. Goerrirrekin lotzearen aukera F alternatiba edota H1 bezala ezagutzen da.

E alternatiba aurrera eramanez gero, bada, Sakanatik igaro eta Goierri aldera eginen luke, Beasaineraino, Aralar mendizerra ere ukituz. F alternatiba —edo H2— eginez gero, Aralar mendian «inpaktu kritikoa ugari sortuko litzuzke».

Informazio hau guztia «isilpean gordetzen» ari direla salatu dute Elkarlanekoek: «Onar ezin daitekeen eraso baten aurrean gaudela erakusten duen froga sendoa da». Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Zerbitzuak 1992an egindako ingurumen-azterketak ohartarazten du Aralarren egindako kalteak handiak izango liratekeela; hala nola, «egitura asko eraikitzearen beharra eskatzen du, baita baso-soilketen beharra ere, edota sarbideak eta tunelak zulatzea, besteak beste». Tunel hauek «arazo larriak emango litzuzketen», Aralar mendien azpian ur asko baitaigo, eta horrek arriskua areagotu egiten duelako.

Zuasti-Tolosa trazatua eginez gero, Arakil haranean hasi,

Larraundik eta Araitz bailare-tatik igaro eta Zarateko lepo azpitik —Gipuzkoarekin egiten du bertan muga— Bedaioko bailaran azalerratu litzateke berriro. Ondoren, kilometro batez Amezketaren errekaren parean, Alegiaraino. Hau izanen da Euskal Y-arekiko loturaren hasiera. «Honek eragin zuzena izanen luke Bedaio, Amezketeta, Alegia, Orendain, Ikaztegieta, Alto eta Tolosako lur nahiz herrietan».

AHTren Aurkako Asanbladakoak Euskal Y «inposatzea geldiarazteko» egiten ari dira ahalgin handiena, «sortuko dituen hondamendi naturalak eta ekarriko dituen ondorioak

ekiditeko eta salatzeo asmoz».

Bihar, epaiketa

Asko dira AHTren aurka egin dituzten ekintzak. Besteak beste, duela ia lau urte mendi mar-txa bat egin zuten —2002. urteko urriaren 22an, hain zuzen ere—: Andoaingo Belkoain mendian hamarnaka lagunek egindako protesta bat izan zen. Beste hainbat udalerritan lan horiek geldiarazteko ekimenak deitu zituzten. Horrek, ordea, zeresana ekarri du Tolosalde-ra; taldekoek azaldu dutenez, badirudi mendi mar-txa horretan ertzainek argazkiak atera zituztela. Horren aurretik Andoain inguruan zundaketetan protestak egin zituzten trenaren gaineko proiektua zela eta. Mendi mar-txako argazki horiek etorri ziren ondoren, eta zundaketaz arduratzen zirenek denuntzia jarri zuten, argazkietan agertzen ziren pertsona batzuk identifikatu egin zituelako.

Handik denbora batera akuzazioak etorri zitzaizkien sei lagunei, epaitegira joan behar zituztela esanez. Epailearen aurrean aurkeztu zuten haien burua identifikatutako sei lagun hauek.

Bihar epaiketa bat eginen dute mendi mar-txara joan zirenen aurka, eta «altza den nahasteari erantzuna emateko», egun berean, 10:30ean, eta AHT da delitua lelopean, Tolosako epaitegiaren aurrean kontzentrazioa deitu dute.

«Asmoa da bertan agertzea eta epaitegi aurrean biltzea, AHTren aurka dauden alde agertzeko, era gratuitoki kriminalizatzen ari baitira». «Gehienez ere, koakzio edo bortxaketa eta mehatxuengatik isuna» jarriko diete, epaituetako baten arabera. Baina AHT Gelditu! Elkarlanak ikusten duen moduan, «akuzazioak, denuntziak, ez dauka oinarririk». Horrexegatik beragatik, epaiketa hori salatu egin du taldeak, «AHTren auzian gobernuak ezarritako inposatze-egitasmoaren ondorio delako».

ALEGIA ▶

Zine-klubean otsailan ikusiko direnak

Gaur, Gaztetxean, 21:30ean, asteazkeneroko zine-klubean, *Memories of murder* filma ikusi ahal izango da. Zuzendaria Bong Joo-Ho da, eta Hego Koreako filma da. Gaur zortzi, hilaren 15ean, *Camino a la perdición* izanen da ikusgai; AEBetako da, eta Sam Mendesen zuzendaritzapean filmatu zen. Eta otsaileko emanaldiekin amaitzeko, hilaren 22an Sandre Nethelbeck zuzendaria *Deliciosa Martha* lana emango dute; pelikula hau Alemaniakoa da.

ALEGIA ▶

Bidegorria egiten ari dira dagoeneko

Alegiatik pasatzen den errepide nagusian obretan ari dira egunotan, bidegorria egiten ari baitira. Aipatutako errepidean jada nabaritzen hasi da aldaketa. Lanei duela hilabete eskas ekin zieten, eta denbora batez horrela jarraituko dute, noizean behin autoak geldituz, langileek obra modu egokian egin dezaten.



Obretako zati bat. N. URBIZU

hirubide
 2006ko otsailaren 8a
 Tolosa, 481 012 000
 Tolosa, 481 012 000
 Tolosa, 481 012 000
 Tolosa, 481 012 000
 Tolosa, 481 012 000
 www.hirubide.org

KALITATEKO HEZKUNTZA

GUTUN@K ▶

Zer gertatzen da Ibarako Udalean?

Hauteskundeak izan zirela bi urte eta erdi pasa diren honetan, PNV-EAren zerrendan hautatuak izan ziren 7 pertsonetatik bakarrik alkateak eta Luis Mari Eceizak jarraitzen dute udaletxe osaketan hartu zituzten batzorde buru karguetan. Kontuan izan behar da Eceizak *apartheid* politikoa onduz hari ez dagokion kargua mantentzen duela.

Legealdiaren hasieratik egoera antidemokratikoz baliatuz zazpi zinegotzi izateko aukera zuten, eta horietatik sei hartu zituzten. Azken bi urte hauetan ikusi dugu nola Mikel Agirrek bere karguak (Hezkuntza, Euskara eta Kirola) utzi dituen eta zinegotzi bezala dimititu duen, Juan Ignacio Arozenak

bere kargua utzi duen (Kultura) baina zinegotzi bezala jarraitzen duela, Peio Aseginolazak arrazoi pertsonalengatik bere kargua utzi beharrean izan den eta azken hilabete honetan Luis Alonso bere batzordeburu kargutik baztertua izan den (Hirigintza), zinegotzi bezala jarraitzen badu ere. Batzorde hauek guztiak Txelo Romeok (alkateak) hartu ditu bere gain.

Hau horrela ikusita, galdera batzuk etortzen zaizkigu burura. Zer gertatzen da Ibarako PNVn eta EAN haien zinegotziak batzordeak uzteko eta pertsona *independente* baten gainean kargu guztiak uzteko? Uste dugu Udalean dagoen egoera jasangaitz honen oinarria arau subsidiarioetatik datorrela. Izan ere, lehenasuna pertsona batzuk dituzten interes pertsonalek eta ekonomikoek dutela dirudi, gainontzean Ibarren sortzen diren beha-

rrei behar bezalako erantzunik eman gabe.

Ulertezina da PNV-EAK *apartheid* politikoz baliatuz lan egiteko prest gaudenak (Uztako zinegotziak) udaletxetik kanpoan uztea. Herri honek ez dauka bozkatu duena, ez eta merezi duena ere.

Ez dugu berdin pentsatuko, baina garbi dagoena da ezker abertzaleko hautetsiok beti lan egin dugula herriaren alde, eta herriaren alde lan egitea ez da bakarrik zenbat etxebizitza egin behar diren eta non erabakitzea. Herriarentzat eta herritarrentzat oso garrantzitsuak diren gai asko landu behar dira Udalean; herritarren iritzia kontuan hartuz eta parte-hartzea bultzatuz. Euskara (ordenantzak aurreko legealdian onartuak aplikatzen jarri gabe, batzordeburua erdalduna); ingurumena; zerbitzuak (pribatizazioa lantzen duten bakarra); Agenda 21; kultura

(noiz bildu dira azkenekoz Hauspoarekin...)

MARIJO RUIZ, MIKEL IGLESIAS
ETA BESTEAK
(UZTA PLATAFORMA) ▶ IBARRA

Tolosaldeko LZP

Tolosaldeko Lurralde Zatik Planaren (LZP) berri eta honi alegazioak aurkezteko epea, hil honen, otsailaren 28a arte dela, duela egun gutxi jakin dut. Tolosaldeko Lurralde Zatik Plan, ordea, zer da? Nork egin du? Zer dio? Zertarako egin da?... Hitzek adierazten dute, Tolosaldeko lurralde antolatetaz, garapen ereduaz, ekonomiaz, gizarteaz, kulturaz, ekologiaz, iraunkortasunaz eta abar, ariko dela. Guztiok eragiten badigu, ordea, herritarrok informatuak izango ote gara?

MANU ODRIOZOLA ▶ ANOETA

ANOETA ▶

Dantza-soka entsegu orokorra gaur Edurkan

ERREDAKZIOA

Aspaldiko ohitura berreskuratu eta gero, aurtur ere Kalereroretan, hau da, hilaren 18an, dantza-soka egingo dute Anoetako herritarrek. Orotara, 80 parte-hartzaile —gazteak nahiz helduak— inguru ari dira astero-astero asteazkenetan Edurkan bildzen dantza-soka entseatzeko. Hala, gaurko deitu dute bilerara Auzolanen plataformako kultura taldeko ordezkariak, eta ondoren dantza-sokako entsegu orokorra egingo dute. Hitzordua 19:00etan izango da, Edurka pabilioian.

IBARRA ▶ ZINEMA

'Sua' film luzean parte hartzeko aukera

Larunbatean Seguran egingo den filmaketan parte hartzeko deia luzatu du Eneko Aritzaren Lagunak filmagintza taldeak

IÑIGO TERRADILLOS

Uztailaz geroztik *Sua* film luzearekin ari dira lanean Eneko Aritzaren Lagunak filmagintza eta kultur taldeko kideak; eta «zertxobait aurreratu dugun arren oraindik lan asko gertatzen zaigu egiteko», azaldu dute. Horretarako, herritarren parte-hartzea eskatu dute; izan ere, larunbatean, hilaren 11n, Seguran egingo dute grabaketa, eta aktoreak behar dituzte filmaketarako.

Grabaketa Segurako San Andres ermita zaharrean egingo

dute; apaizaren sermoiaren grabaketa izango da, hain zuzen, egingo dutena; eta ermita betetzeko asmoa dutenez, jende askoren beharra dute. Estrekin eman beharreko jantziei dagokionez, kultur taldeko kideek jantziak badituztela azaldu dute; baina zenbat jende agertuko den ez dakitenez, eta inor kanpoan gera ez dadin, bakoitzak, ahal duen neurrian, bere arropak ekar ditzala eskertuko dutela adierazi dute. Hala, oinetarako alpargatak edo abarkak eman daitezkeela zehaztu dute; gizonak txandal

zahar bat edo elastikoak, eta alkandora zuri edo urdin zaharra, txalekoa edo zindutako niki mandaduna jantzi dezake, eta emakumeek, berriak, soineko zaharkituak edo sardine-rona gonak eta niki edo alkandora zaharkituak jantzi ditzakete. Jantzirik gabe datorrenak kultur taldekoek jantziko dituztela azaldu dute.

Ibarako plazan 10:00etan jarri dute hitzordua, eta Seguran, bertako ikastolan, 11:00etan. Filmaketak larunbat goiza irauango duela azaldu dute, eta tartean mokadutxo-



Sua filmeko grabaketaren une bat. HITZA

ren bat hartzeko parada ere izango da. Filmagintza eta kultur taldeak herritar guztiak animatu nahi ditu grabaketan parte hartzera, aktore izateko esperientzia jasotzeaz gain «ederki pasatzeko aukera izango delako».

Martxoaren 11n, Maulera

Larunbatekoan bezala, hurrengo hilabetean egingo du-

ten filmaketa batean ere jende andana beharko dute Eneko Aritzaren Lagunak filmagintza eta kultur taldeko kideak. Izan ere, Maulen matxinada bat irudikatze asmoa dute *Sua* filmaketa, eta horretarako ere herritarren parte-hartzea ezinbesteko izango zaie. Martxoaren 11n joango dira Maulera filmaketa egitera, eta bertara joateko autobusak antolatze asmoa dutela adierazi dute.

iragarki laburrak ▶



Albiztur. Berrikuntza behar duen baserria. 200 m², hiru solairu. 35.000 m²-ko lursaila.

Alkiza. Bi familientzako baserria salgai. Berritzea. Informazio pertsonala.

Andoain. 80 m²-ko etxebizitza. Erabat berritua. Kanpoaldera.

Igogailuarekin. Ikuspegi ederrak.

Anoeta. Duplex-a estreinatzeko. 4 logela, 2 bainueta, egongela,

sukaldea eta terraza. Garajea aukeran.

Berrobi. 50 m²-ko etxebizitza.

Berritua.

Donostia. Portu-Ene. Berrituriko etxebizitza ederra. Eguzkitsua.

Ikuspegi ederrak.

Elosua. Berrikuntza behar duen baserria salgai. 35.000 m²-ko lursailarekin.

Irura. Laskibar aldean, eraikuntza

berriko etxebizitza salgai. Garajea aukeran.

Lizartza. Erdi berrituriko etxebizitza.

Trastelekuarekin eta sotoarekin.

Tolosa. Zumalakarregin, 150 m²-ko etxebizitza. Egoera ezin hobean.

Garajea aukeran.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Eraikuntza berria azken etxebizitza salgai.

65 m² erabilgarri.

Tolosa. Tren geltoki inguruan,

102 m² dituen etxebizitza salgai. Lorategia eta garajearekin.

Eraikuntza berria.

Tolosa. Zumalakarregi. Berritzen ari diren etxebizitza. Informazio pertsonala.

Tolosa. Santa Klaran, 90 m²-ko etxebizitza.

Tolosa. Alokairuan hainbat etxebizitza ditugu. Lan kontratua eta bermea beharrezkoak.

LEITZA ▶ UDALA

Suhiltzaileen egoitza hazten ari dira

54,1 mila euroko aurrekontuarekin, Lantalan enpresa ari da egiten

JAIONE ASTIBIA

Leitzako suhiltzaileen egoitzan handitze lanetan ari dira azken asteetan. Amazabal auzoan, Leitzako suhiltzaileek duten egoitzari atzekaldetik puska bat eransten ari dira: dagoeneko eraikinaren egitura egin-tzea dute, laster teilatua egiteari ekinen diotelarik.

Hau, udalak duen egitasmoren lehen fasea da, alegia, eraikina egitearena. Gero etorriko da horren atonketa, biga-

rren fasean. Jakina da suhiltzaileen egoitza hori anbulantzien zerbitzuak ere erabiltzen duela: suhiltzaileen garajeetan sartzen dituzte anbulantziak eta bulego edo guardiako egoitzak garajearen gainean dituzte. Eraikin berri honekin, anbulantziak sartzeko leku propioa izanen omen dute, garajea horretarako bideratuko da eta eta goiko solairuan, berriz, suhiltzaileentzat bulegoa jarriko dute, eskaintzen duten bost bost zerbitzu horretara-



Handitze lanetan ari dira suhiltzaileen egoitzan; egitura eginda dago eta estalia ematera doa. JAIONE ASTIBIA

ko azpiegiturak hala egokitze-ko.

Lan hauek abenduan esleitu zizkion alkateak Lantalan erakuntza enpresari. Lanen aurre-

kontua 54.111,60 eurokoa izan zen. Nabarmentzekoa da bost bost zerbitzuak erabiltzeko suhiltzaileen zerbitzuari dagokion lan bat izanik, Nafarroako Gobernuak Babes-

go Zibiletik diru laguntza izanen duela lehen fase horrek, zehazki 11.000 euroko laguntza. Gainerakoak herriak ordainduko du.

GIZARTEA ▶

Drogomenpekotasunaren prebentzioa dela-eta hitzaldi sorta antolatu dute

Gaur 16:30ean da aurrenekoa apaizetxean, interesa duenari irekia

J. ASTIBIA

Gaur arratsaldean, 16:30ean, eta apaizetxean, Iñaki Alberdiren hitzaldia izanen da, gurasoentzat. Halaxe jakinarazi zuten atzo antolakuntza lanetan ari diren taldekoek.

Iñaki Alberdi Nafarroako *Gizakia Helburu (Proyecto Hombre)* delakoarean sortzaileetako bat da. Drogomenpekotasunaren edota horren prebentzioaren esparruan «bere urte-etako eskarmentua oinarri hartuta, familia-prebentzioaren garrantzia azalduko du gu-

rasoendako», azaldu zioten HITZARI. «Familiaren hezkuntza, gurasoen eta seme-alaben arteko harremana, komunikazioa ezinbesteko dira, gero oinarri sendoko eta autoestimaz jantzitako pertsona helduak hezitzeko», azaldu zuten. Eta, hain zuzen ere, «horretarako pautak batzuk, ideiak, bideak... azalduko dira». «Etxetik kanpo, munduan, kanpoan dagoen horri guztiari, eta jakinaren gainean besteen artean, drogomenpekotasunaren arriskua ere hor dagoela, aurre egiten ikasi behar da, bai guraso-

ek, bai seme-alabek, bai guztiek: prebentziorik onena harreman sendoa eta komunikatiboa eraikitzea da», baieztatuz, besteen artean.

Iaz urte osoan gaia landuz aritu omen ziren hainbat guraso: adituekin harremanetan jarrita, hainbat hitzaldi jaso omen zituzten, eta gero bilerak eta mahai inguruak eginez adituek esandakoaren inguruan, eztabaidatu, ideiak atera, gaiak landu... zituzten. Oso ikasbide baliagarria suertatuta, aurten ere bide berari jarraitzea erabaki dute, «baina herriko gura-

so guztiei» egitasmo honetan parte hartzeko deia eginez, ziotenez. «Leitzako nahiz Aresoko gurasoei batez ere, eta interesa duen ororori, zabalduko deia lanerako konpromisoa eta jarraipena azalduz, beti ere», nabarmendu zuten.

Urte guztiko egitaraua prestatuta dute eta gaur bertan emanen omen dute jakitera, esan zuten. Gaur Alberdiren hasiko diren moduan, esate baterako, hurrena Iruñeko Susperu lan taldekoak etorriko dira: «hauek arazoak dituzten gaztetxoekin egiten dute lan», zehaztu zuten. Dena den, «batoren etabestearen artean, lan taldeak eginen ditugu eta entzundako hori sakondu egingen dugu, landu», azaldu zuten.

Iazko lanarekin gaur jarraituko dute, beraz, lehen saio honenkin.

GIZARTEA ▶

Ezkongaien ikastaroak eginen dituzte 25etik aurrera

J. ASTIBIA

Larraungo Artziprestazgotik jakitera eman dutenez, hil honen 25etik aurrera «ezkongaien ikastaroak» emanen dituzte apaizetxean.

Bost larunbat jarraietan, 16:30ean hasita izanen omen dira ikastaroak, euskaraz izanen ere, «Nafarroa guztian euskaraz ematen diren bakarrak», zehaztu dutenez. Horietan parte hartzeko gonbita egin diete aurten ezkontzeoak diren Leitzako, Areso eta Larraungo bikote ezkongaiak.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK Telf.: 943 65 56 95
19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nf

hilberriak eta urteurrenak ▶

† Bonifacio Azkune Aranguren



Hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztioi. Ilandean, hilaren 12an, 11:30ean haren aldeko meza izango da Oñatzko elizan.

AZPEITIA, 2006ko otsailaren 8a



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Info 7 irratia-
ren proiektua aurkeztuko du
Azti-begia elkarteak.
20:00etan, Kultur Etxean.

ERAKUSKETAK

Ibarra. *Calcuta, begirada
zabalik.* Hilaren 15a arte,
Kultur Etxean.
Tolosa. Luis Maria Nuñez-
en margolanak. Hilaren 25a
arte, Aranburu Jauregian.

HITZALDIAK

Tolosa. DBHko eskaintzari
buruzko bilera
informatiboa. 18:00etan,
Laskorain Ikastolan.

INAUTERIAK

Tolosa. Karroza eta
konpartsen izen-ematea.
Etxe arte,
Aranburu Jauregian.
Tolosa. Zaldunita bezperako
danborradarako entseguak:
hilaren 13an, 14an, 15ean
eta 16an, 20:00etan,
Kultur Etxean; eta hilaren
21ean, 20:15ean,
Musika Eskolan.

ZINE-KLUBA

Alegia. Bong Joo-Ho
zuzendariaren *Memories of
murder* filma. 21:30ean,
Gaztetxean.
Tolosa. Kim Ki Duk
zuzendariaren *Hierro 3*
filma. Bihar, 21:30ean,
Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7.
943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre Irratia
(107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza*
magazina: eguraldia Joxe Landarekin,
Hitza-aren errepasoa, agenda, albisteak,
elkarrizketak, lehiaketa, disko
eskainiak...
18:00-19:00. *Irauli uhinak*,
Gaztesareak prestatzen duen saioa,
Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren
eskutik.
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotza*
(errepikapena).
21:00-22:30. *Bide okerretik*, Euskal
Herriko musika mugimenduari buruz.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Energia bidelagun

TOLOSA ▶ Zenbait ikasle talderen bisita jaso du dagoeneko 'Energia Bizi' erakusketak; etzi arte egongo da zabalik, Plaza Berrian



Energiari buruz adituak emandako azalpenak adi jarraitu zituzten ikasleek. L. MONTES



Bost gunetan barna egiten du bidaia bisitariak; informazioa biltzen ere aritu ziren atzo gazteboak. L. MONTES

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Karmen (Lizartza).
84 urte.

Zorionak familiaren partetik.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

ERREDAKZIOA

Zertarako erabiltzen du hau? Zer egin behar dugu etxetresna elektrikoekin etxetik kanpo egun batzuk pasatzen ditugunean? Nola aurreztu dezakegu energia sukaldetan, dutxa bat hartzerakoan?... Horrelako galderak erantzun behar dituzte Energiaren Euskal Erakundearen (EEE/EVE) *Energia Bizi* erakusketa bisitatzen duten gazteboak. Atzo goizean Laskorain Ikastolako talde batekin egin zuen topo Hitzak Tolosako Plaza Berrian dagoen erakustokian; adi eta jakinminez jarraitu zituzten arduradunaren azalpenak.

Bost gunetan barna, gure arbasoak sua erabiltzen hasi zirenetik, iraultza industrialak ekarri zuen energia kontsumo aldaketak eta gaur egun erabiltzen ditugun energia iturri guztiak ezagutzeko bidaian murgiltzen ditu ikasleak *Energia Bizi* erakusketak, «energiaren nondik norakoan eta eguneroko bizitzan duen garrantziaren berri emateko asmoz». Energia berriztagarriak sakonki aztertzen ditu, gainera, «etorkizunerako energia garbia baitira».

Jolaserako tartea ere bada. Izan ere, bisita amaitzean, energiaren kontsumo arduratsurako aholkuak jasotzen dituzten hainbat izar aurkitu behar dituzte gazteboak 180 metro koadroko erakustoki eremu guztian. Lasterketa bat balitz bezala, txoko batera eta bestera ziztu bizian abiatu ziren atzo Laskoraingoak. Ikasitakoa elkarri kontatu zioten gero.

Beste hainbat ikastetxek ere bisitatuko dute egunotan erakusketa ibiltari hau. «Adin guztietara zuzenduta badago ere, arreta berezia eskaintzen diegu eskola ikasleei; hauek dira, azken finean, etorkizunean energiaren erabilera hobea egiten ahalagindu beharko dutenak», diote arduradunek. Etzi arte izango da erakusketa Tolosako Plaza Berrian, 10:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 18:00etara. Gero, beste hainbat herritan jarriko dute; besteak beste, Villabonan.